

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

## **KARMELE JAIIO ITZULTZEN EDO ITZULPENAREN ESKUAK IDAZLEAREN ETXEAN**

Miren Ibarluzea Santisteban (Euskal Herriko Unibertsitatea – UPV/EHU)

\*Argitalpen hau Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLL) ikerketa taldearen IT 1047-16 (Eusko Jauriaritza) egitasmoaren eta FFI2017-84342-P (Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades) proiektuen baitan egin da.

\*\*Dorota Krajewska, Marta Kopinska eta Manuel Padilla-Moyanori eskertu nahi diet polonierazko eta errusierazko testuak deszifratzeko laguntza eman izana. Nola ez, bihoakio Karmele Jaiori ere nire esker ona, lan honetarako behar-beharrezkoak izan zaizkidan bere eskuragarritasuna, denbora, patxada eta arreta oparitzeagatik.

### **LABURPENA**

Karmele Jaioren itzulpen habitusaren berri jasotzen da kapitulu honetan, bere itzulpen-esperientzien, usteen, jarrerren eta errepresentazioen berri, alegia. Datu bilketarako iturri nagusia harekin izandako elkarrizketa gidatua izan da. Elkarrizketa horretan galdetegi bat erabili da, idazlearen hizkuntza biografiari, itzulpen esperientziari, itzulpenari buruzko usteei eta profesioarekiko atxikimenduari lotutako galderak biltzen dituen eta lehenagoko ikerlanetan beste euskal idazle batzuekin ere erabili izan dena. Idazlearen itzulpenaren gaineko diskurtsoa *Amaren eskuak* (2006) eta *Aitarene etxea* (2019) eleberrietan ere ageri da, eta eleberri bi horien euskarazko eta gaztelarazko bertsioak aztertu dira. Funtsean, Jaiok autoitzultzaile gisa egindako ibilbidea, bere testuak itzultzeko gakoak eta euskal idazle-autoitzultzaile gisa dituen kezkak azaltzeko saioa da kapitulu hau.

### **HITZ GAKOAK**

Karmele Jaio, Euskal literatura itzulia, itzulpen habitusa, autoitzulpena, itzulpenaren errepresentazioak

### **Kapitulu honetako eskuak, etxeak eta itzalak**

*Karmele Jaio itzultzen* esapideak hainbat geruzatan egiten dio itzal jarraian datorren testuari: batetik, Karmele Jaiorekin izandako elkarrizketa baten itzulpena da testu hau; beste hitz batzuetan esanik, Karmele Jaiorekin izandako solasaldi baten interpretazioa, egileak itzulpenari buruz agertutako jarrerak, usteak, ideiak... bildu, ikusarazi eta aletu asmo duena. Bestalde, *Karmele Jaio itzultzen* esapidearen bidez irudikatzen da Karmele Jaio bera bere testuak zein besterenak hizkuntza batetik bestera lekualdatzen eta isurtzen.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Era berean, Karmele Jaioren testuekin lanean ari den beste pertsona bat ere etor liteke gure gogoetara *Karmele Jaio itzultzen* esapidearen itzalpean. Bada, Karmele Jaiok autoitzuli egiten ditu bere testuak euskara>gaztelania hizkuntza konbinazioan, eta prozesu horren gorabeherak ekarriko ditugu bertora. Halaber, ez dira bakanak Karmele Jaioren euskarazko testuak gaztelera ez, beste hizkuntza batzuetara eraman dituzten itzultzaileen lanak. Bada, horiek kokatzeko ahalegina egingo dugu hemen, bai eta nabarmenduko ere zein diren Jaioren ustez itzulpen horietarako gakoak. Norberaren zein besteren itzulitako ekoizpenak eta horien prozesuak, baina, ez dira euskal idazleek itzulpenarekin duten lotura bakarra: gizarte esparru eleaniztun batean bizi direnez gero, egunerokoan darabilte itzulpena, egunero kontsumitzen, ekoizten, eraldatzen, errepresentatzen, komentatzen... dute. Itzulpena kezken eta gogoeten iturri da sarri askotan euskal idazleentzat, eta errealitate hori hain dute barneraturik, ezen itzulpenaren eta itzultzailearen irudia idazketara ere eramaten duten: euskal idazleek fikzioan ere gorpuztu dute itzulpena eta itzultzaileak dira sortu dituzten pertsonaietako batzuk (Ibarluzea, 2017; 2020a). Hori da Karmele Jaioren kasua, eta itzulpenak eta fikziozko itzultzaileak Jaioren sormen lanean izandako agerpenari erreparatuko diogu, hain zuzen ere, *Amaren eskuak* (2006) eta *Aitaren etxea* (2019) eleberrien euskarazko eta gaztelaniazko bertsioei begiratuta. Zalantzarik gabe, agerpen hori loturik dago Karmele Jaiok hizkuntza gutxitu bat darabilen komunitate eleaniztuneko kide eta sortzaile gisa dituen kezkekin; hala, fikzio lanak aztertuko ditugu eta lehenago aipatutako elkarrizketan egindako gogoetek etengabe egingo dute itzal.

### **Pauso bat gehiago arestian egindako bidetik**

Euskal idazleen artean badira autoitzultzaileak; alegia, euren lanak itzultzen dituzten idazleak. Badira, halaber, gurago izaten dutenak langintza beste itzultzaile baten esku utzi; hots, gurago dutenak itzulpen alografoaren bidetik jotzea; bide horretan posible da egileak maila batean edo bestean esku hartzea eta itzultzailearekin lankidetzan aritzea. Euskal itzulpen ikasketen esparruan egindako lan akademikoak hizpidera ekarrita, *continuum* gisa irudikatzen du Manterolak autoitzulpenetik itzulpen alografoarako marra, askotarikoak direlako bitartean egon litezkeen kolaborazioak (2012, 2017), eta autoitzulpenak ere askotarikoak izan daitezke, Arrulak (2018) bere doktorego tesian azaldu legez. Euskal idazleen artean, bietarik egin duenik ere bada, hau da, autoitzulpenak zein ko-itzulpenak egin dituenik. Era berean, batetik besterako bilakabidea egin duenik ere bada, eta ibilbide horiei begiratu izan zaie, esaterako, “The translation habitus of basque writers” (2015) edo “Evolución de la faceta (auto)traductora o de autor traducido. La casuística vasca actual” (2018) artikuluetan. Lan horietan irakur daiteke, adibidez, ko-itzulpenetik auto-itzulpenerako norabidean egin dituela pausoak Miren Agur Meabek, eta itzulpen autoitzulpenetik itzulpen alografoakoa Kirmen Uribek. Halatan ere, Manterolak (2018) ondorioztatzen du ez dagoela molde sistematizaturik edo errepikatzen den patroirik eta autore bakoitzak unean uneko zein bere ibilbideko baldintza pertsonal eta profesionalen araberrako hautua egiten duela. Autoitzulpenen zein itzulpen alografoen bidea hautatzeko edo ibilbide aldaketak egiteko arrazoi pertsonal zein profesionalak askotarikoak dira: testuaren kontrolaren ilusioa, bertsio berrian aldaketak txertatzeko aukera, xede hizkuntzan norberak duen gaitasunaren pertzepzioa, idazlearen hizkuntza

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

identitatea, sorkuntzari eta itzulpenari eskaini ahal edota nahi zaion denbora, itzultzaileen profesionaltasunaren alde egitea, itzultzaile falta, arrazoi ekonomikoak, lanbide aldaketak... (López Gaseni, 2005; Ibarluzea, 2015; Arrula, 2018; Manterola, 2018; Arrula eta Manterola, 2019).

Beste autore batzuen lanak itzuli izan dituen euskal idazlerik ere bada. Edonola ere, eta Manterolaren datuen argitan (2018), euskal idazle gehienek ez dute besteren lanik itzultzen beren testuak autoitzuli ohi dituzten hizkuntza konbinazioan. Batzuetan enkarguz edota lanbidez egiten dute idazleek ariketa hori; beste batzuetan, ostera, idazketa lantzeko edo trebatzeko. Esaterako, norbere idazketaren eta estiloan eragin dezaketen eredutzat hartzen du Kirmen Uribek itzultzaileen testua, eta aitortzen du itzulpen lan batzuk mahai gainean izaten dituela idazketa prozesuan (Ibarluzea, 2015, 2020b). Itzulpengintzak euskal literatur sistemari ez ezik, norberaren idazketari ere dakarzkion aberastasunen aldarri egin izan du sarri Anjel Lertxundi idazleak, bai eta itzulpenaren inguruko gogoetari eskaini *Itzuliz usu begiak* saiolan literarioa ere, non argi dioen: “euskaraz zenbat eta aukera gehiago izan originaletan zein itzulpenetan, orduan eta ugariagoa haien ispilu euskarazkoetan ikasteko abagunea” (2019: 187). Adibideak ere ematen ditu, eta azaldu egiten du zer itzulpen darabiltzan errefrentziatzat bere idazketarako (*idem*).

Euskal idazleek itzulpenarekin dituzten loturek, ohiturek, esperientziek, hizkuntza aniztasunean bizitzeak, euskal itzultzaileen profesionalizazioaren lekuko izateak... askotariko posizionamenduak, jarrerak eta diskurtsoak eragin eta eraikiarazi dizkiete euskal idazleei eta, hain zuzen ere, diskurtso horien nolakotasunak eta agerpenak izan ditugu hizpide lehenagoko lanetan. Euskal idazle zenbaiti egindako elkarrizketak ez ezik, hainbat euskal idazleren fikzio lanen azterketa ere egin izan dugu orain arte (batzuk aipatzearen: *Katebegi galdua*, *Martutene*, *Twist*, *Fizkioaren izterrak*, *Bizitza homeopatikoa*, *Idazten ari dela idazten duen idazlea*, *Mussche*); azken finean, Bourdieuren soziologiaren terminoetan esanik, fikziozko lanak barneratutako habitusaren errepresentazio baitira (Ibarluzea eta Arroita 2020; Ibarluzea 2020a, 2020b, 2016, 2015). Ikerlan horietatik ondorioztatu izan dugu euskal idazle garaikideen itzulpengintzarekiko gertutasuna gizarte eleaniztun bateko kide izatearekin lotuta dagoela, eta gizarte horretan egiten duten idazketa jardueraren partetzat hartzen dutela gehienetan; oro har, orain arte elkarrizketatutako idazle denek ere denek aitortzen dute bestelako prozedurak eta estrategiak darabiltzatela nork bere zein besteren testuak itzultzean, eta nork bere testuekin askeago jokatzeko dutela. Euskal idazle garaikideak jakitun dira, badirenez, itzulpen eremu egituratu baten existentziaz eta beharraz, bai eta haren inplikazio politikoaz eta kulturalaz ere. Ildo horretan, badirudi itzulpen eta idazketa jarduerak eta eremuak bereizteko joera dagoela, eta itzultzaile profesionalaren figura onartu eta ikusaraztekoa. Esan daiteke euskal idazle garaikideek trukerako eta sorkuntzarako eragile positibotzat jotzen dutela itzulpena eta hori itzulpenak kultura eraikitze duen ahalmenaren froga dela. Hala ondorioztatu dugu orain arte bildutako elkarrizketen diskurtso analitiko, eta diskurtso hori fikzioan ere islatu da: itzultzailearen irudia bilakatuz eta aldatuz joan da azken hamarkadan euskal literaturan agertu denean, eta gaur egungo itzulpen eremuari loturiko kezkak irudikatzen dituzte paperezko itzultzaileek.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Oraingo honetan, Karmele Jaioren itzulpen habitusaren azterketa gehitzen zaie aurrekoei, besteetan bezala helburu izanik euskal idazle-itzultzailearen ahotsetik ematea bere itzulpen esperientzien berri, itzulpengintzari buruzko bere gogoetak agerraraztea eta bere fikzioetan agertutako itzultzaileen nolakotasunari erreparatzea. Hala, Karmele Jaiorekin izandako solasaldi bat dugu ardatz. Solasaldi hori gidatzeko galdetegi bat erabili da; hizkuntza biografiari, itzulpen esperientziari, itzulpenari buruzko usteei eta profesioarekiko atxikimenduari buruzko itaunak biltzen zituen. Halaber, Jaioren bi eleberri arakatu dira, itzulpenen eta itzultzaileen aipamenak egiten direnez gero. Eleberrien bi bertsioak aztertu dira, bai euskarazko bertsioa, bai gaztelarazkoa.

### **Karmele Jaioren biografia linguistikoan barrena**

Txiki-txikitatik, bizi esperientziak erakutsi dit gauzak adierazteko zer modu ezberdin dauden. (Jaio, 2021)

Itzulpen intralinguistiko gisa, hots, hizkuntza beraren barruan, sorburu hizkuntza eta xede hizkuntza berbera direla, egiten den itzulpen gisa izenda liteke Karmele Jaioren itzulpenarako gerturatzea; bidenabar, hainbat eta hainbat euskal hiztunek bizi dutena. Izan ere, euskara du Jaiok etxeko hizkuntza eta etxeko aldaeraren eta eskolan erabiltzen zuten hizkuntza aldaeren arteko aldeak eragin omen zion gauza bera modu ezberdinez esatearen kontzientzia. Halaber, kontzientzia hori gizarte elebiduneko kide izateak ere piztu zion: “Etxean Lekeitioko euskara egiteak eta ikastolan batua eta gaztelera egoteak erakutsi zidan gauzak oso ezberdin adierazi daitezkeela, eta hizkuntza batean esaten dena beste modu batez esatea oso zaila dela, edo ezinezkoa batzuetan” (Jaio, 2021). Batez ere euskara batua eta gaztelania izan dira Jaioren hitzetan bere bizitzan denbora guztian presente egon diren bi hizkuntzak, bietan bizi izan da eta bizi da orain ere. Ingelesa ere ikasi du, irakurri eta hitz egiten du ingelesez, baina Jaiok berak dionenez, ez du gaztelaniaz eta euskaraz duen erraztasunik. Ingelesez eleberriak irakurtzeko ahalegina egiten du, “ez hainbeste originalaren bila, ezpada hizkuntza mantentzeko” (Jaio, 2021).

### **Karmele Jaioren itzulpen praktika: berriz kontatzea**

Nire harremana itzulpenarekin: laneko testuak itzultzea eta nire euskarazko jatorrizko testuak berriz kontatzea. (Jaio, 2021)

Kazetaria da lanbidez Jaio, EMAKUNDE – Emakumearen Euskal Erakundeko Koordinatzailea eta prentsa arduraduna da, eta bere lana da testuak sortzea, gaztelaniaz eta euskaraz. Etengabeko itzulpeneari aritzen da, gaztelaniatik euskarara eta euskaratik gaztelaniara, bietara ematen diren testuak berak sortzen baititu. Informazioa nola iristen den, hala eman ohi du testua normalean, baina ez du arau sistematikorik eta, dioenez, batzuetan batean eta besteetan bestean sortzen du, eta gero itzuli.

Laneko testuez gain, egunkarietako zutabeak ere sortzen eta idazten ditu Jaiok. Azken horiek blogera eramaten ditu, bi hizkuntzatan. Aipagai ditugun testuak *Deian* eta *Noticias de Gipuzkoan* beti euskaraz argitaratzen dira, eta *Noticias de Álavan* astearen arabera

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

argitaratzen dira, batean gaztelaniaz, batean euskaraz (salbuespenak albuespen). Horiei buruz ari dela “normalean euskaraz idazten ditut eta gero itzuli. Nahiz eta kasuren batean alderantziz ere egin izan dudana” dio Jaio (2021).

Horiek horrela, esan dezakegu kazetari lanean testuen sormenerako eta itzulpen norabiderako sistematikotasunik ez badu ere, idazle rolean prentsarako egiten duen jardunean eta, zer esanik ez, idazketa literarioan, sormen hizkuntza euskara duela (kontuan hartzekoa baita lan literarioak oso bakanetan sortu dituela euskaraz). Alegia, literatur lanetan eta lanbidekoak ez diren prentsarako zutabeetan euskaraz sortu ondotik euskara>gaztelania norabidean itzultzen duela.

Jaio dio bere kasuan bere bizimoduaren parte dela itzultzea: “bi hizkuntzatan bizi naiz eta egiten dudana ez da hainbeste itzulpen bat, eta are gehiago literaturan. Berridazketa bat da” (2021). Hala, ez du bere burua itzultzaile gisa ikusten, ezpada berak dakien beste hizkuntza batean kontatzen dituen idazle gisa. Jaio ez du itzulpen ikasketarik eta horregatik ere badiu ez dela inolaz ere itzultzailea: “esperientziak eman didanari tiraka eta etengabe hori egin dudalako segitzen dut, baina ez dut ikasi nola egiten den” (Jaio, 2021).

Hala, itzuli itzultzen duen arren, ariketa hori idazketarekin lotzen du Jaio, eta argi du bera ez dela itzultzailea, itzultzaileen arlo profesionala (elkartea, tarifak, lan baldintzak...) ez zaizkio gertu-gertukoak. Itzultzaileen mundua ez zaio urruna bizi dugun testuinguru eleanitzean, baina ez dauka harreman esturik profesioarekin. Miresten ditu Jaio itzultzaileak: “errespetu handia diet” (2021) aitortzen du; gainera, uste du ez zaiela ematen merezi duten garrantzia eta ikusgarritasuna. Jaioren hitzetan, kalitate handiko euskal itzultzaileak daude eta euskarara ekarritako lanak irakurtzea oso aberasgarria da; azken finean “konturatu gabe ere analizatzen duzu nola esaten duen halakok zerbait, bertsioak konparatzen ibili gabe ere” (Jaio, 2021).

## **Karmele Jaio autoitzulpenaren ispiluan**

Itzultzea zure testua ispilu batean ikustea bezalakoa da. (Jaio, 2021)

Lehentxeago esan bezala, oso bakanetan sortu du Karmele Jaio gaztelaniaz. Enkarguz egin izan du ipuinen bat, eta ondoren euskarara itzuli. Baina, oro har, bere obra euskaraz idatzia da, eta berak ondoren gaztelaniaz emana. Ez du beste inoren testurik euskaratzeko saiakerarik egin. Gaiaz galdetuta ariketa polita eta aberasgarria izan daitekeela dio, asko ikasi daitekeela itzultzen, baina idazteko denbora lortzea duela arazo handienetako bat, eta idazteari eman nahi izaten diola lehentasuna (Jaio, 2021). Jaioren autoitzulpenaren hautua autoreak bere testuak moldatzeko duen zilegitasunean datza. Zergatik autoitzuli? Bada, “ez dudalako nire burua errekonozituko itzulpen literal batean, nik ere gaztelania badakidalako” (Jaio, 2021) eta “originala berridazteko modu bat ere badelako, testuaren disezioa egin eta nork bere testuaren nolakotasunaz konturatzekoa eta aldatzeko aukera” (Jaio, 2021).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Karmele Jaioren lumako itzulpenak dakartzagu jarraian, besteak beste, *Nor da nor* datu basean ageri diren datuen argitan.

2020an atera berria da *No soy yo* (Bartzelona, Destino) liburua; bada, ipuin bilduma osatzen duten ipuinen artetik bederatzi *Ez naiz ni* (2012) liburukoak dira. Honela dio autoreak ipuin bildumari egindako oharrean “Los cuentos que he reunido en este volumen pertenecen a un mismo universo. Nueve de ellos fueron publicados en el libro *Ez naiz ni*, que se editó en euskera en el año 2012 y que nunca ha sido traducido al castellano, y los otros cinco son relatos nuevos escritos con posterioridad” (Jaio, 2022). Bildumaren paratestuan ez da erabat argi zehazten euskarazko haiek atera ondoren gazteleraz edo euskaraz sortuak diren, baina bakarra da gaztelaniaz sortua, “Sol de abril”, *El Correo* egunkariak gaia emanda (“pandemia”) enkarguz sortutakoa. Gainerakoak, euskaraz sortu eta ondoren itzulitakoak dira. “El grito” izenekoa “Gure pasioak” izenburuarekin argitaratu zen Athletic Fundazioak egindako publikazio batean (2014), *Letrak eta Funtbola* izeneko proiektu baten baitan. Ostera, “Instrucciones para un encuentro”, “Fresas de invernadero” eta “El espejo” euskaraz sortuak izanagatik, ez daude euskaraz argitaratuta; bai, ordea, gaztelaniazko bertsioan bilduma honetan.

Jaioren euskara>gaztelania itzulpen konbinazioko ekoizpenekin jarraituta, aipa ditzagun 2020ko *La casa del padre* (Bartzelona, Destino) eleberria, euskarazkoa argitaratu eta urtebetera plazaratua; urte bereko *Una escalera en común* (Lasierra, Azala) errelatoa, etorkizuneko zaintza sareen inguruko fabulazioa eta *Borradores del futuro* proiektuaren baitan egina eta euskarazkoa argitaratu zen une berean sareratua; 2010ean plazaratu zen *Nuestras guerras: relatos sobre los conflictos vascos* ipuin antologian (Madril, Lengua de trapo) bildutako “Recuerdos” ipuina, urte bereko *Heridas crónicas* bilduman ere argitaratua; 2013ko *Música en el aire* (Donostia, Ttarttalo) ipuin liburua, euskarazko bertsioa argitaratu eta lau urtera etorri zena; euskaraz *Hamabost zauri* (2004) eta *Zu bezain ahul* (2007) ipuin liburuetan argitaratutako ipuinen hautaketa biltzen duen 2010eko *Heridas crónicas* (Donostia, Ttarttalo) eta 2008ko *Las manos de mi madre* (Donostia, Ttarttalo). Bada, halaber, bestelako antologietan ere txertatu den ipuinik. Esaterako, Pamiela etxeak *Biblioteca Letras Vascas* bilduman emandako *Narrativa vasca actual (I)* lanean (2013) Jaioren “Peritas en dulce” testua jasotzen da (jatorrizkoa 2012ko *Ez naiz ni* ipuin liburuan eman zen argitara: “Azukrezko madaritzuak”), euskaratik gaztelaniara itzulitako beste euskal autore batzuen ipuinekin batera eta jatorriz gaztelaniaz sortutako zenbait lanekin batera.

Garazi Arrulak autoitzulpenez bildutako datuen arabera, haur eta gazte literatura da euskal autoitzulpenen artean nagusi den generoa, eta ondoren datoz eleberria, poesia, saiakera eta ipuina (2018, 144). Bada, bigarren multzo horretan txertatzekoak dira Jaioren autoitzulpenak; kontuan hartzekoa da gaztetxoentzako lanek ez dutela hainbesteko pisurik Jaioren obran (nahiz eta baduen halako lanik: *Putz egin eta ikusiko duzu*, Ikaselar, 2021). Argitalpen lekuei eta etxeei begiratuta ere, esan dezakegu Jaioren autoitzulpengintza bat datorrela euskal idazleenen joera nagusiarekin; izan ere, autoitzulpenen erdiak baino gehiago Euskal Herrian argitaratzen dira, eta jarraian datoz, erdiz erdi, gutxi gorabehera, Madril eta Katalunia (Arrula, 2018, 146). Nabarmentzekoa da, nolana ere, Jaiorenean jauzi bat gertatu dela Euskal Herriko argitaletxeetatik

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

nazionaletara. Jatorrizkoaren argitalpen urtetik itzulpenera bi urte igarotzen dira autoitzulpenen % 62,1aren kasuan (Arrula, 2018, 140); bada, Jaiorenean halaxe gertatu da eleberriekin, baina ez ipuin bildumekin, azken horien ontze edo argitaratze prozesua luzeagoa izan baita.

Itzulpen prozesua abiatzea eta prozesua bera aldatu egin da Jaiorenean lehenbiziko esperientziatik gaur arte, eta testuingurua ere ezberdina izan da: hasierakoetan lana bukatu ondoren ekin zion Jaiok itzulpenari; eskariz lehenbiziko aldian, eta modu naturalago batean ondoren. *Amaren eskuak* eleberriaren itzulpena argitaletxearen proposamen baten harira egin zuen, itzulpenarako diru laguntza batzuk tarteko. Berdin gertatu zen ipuin liburuarekin. Esperientzia horien ondoren, lanak bukatu berritan modu naturalean ekiten zion Jaiok itzultzeari, inoren eskaririk gabe edota jakin gabe argitaratu egingo ziren edo ez. Bere poemen itzulpenak ere eginak ditu, eta bere blogean sareratuta horietako zenbait, baina ez daude hortik kanpo gaztelaniaz argitaraturik. *Ez naiz ni* bildumako ipuinak, adibidez, itzulita zituen Destino argitaletxearen proposamena etorri aurretik (Jaio, 2021). Nolabait, itzulpena idazle gisa egiten duen jardunaren parte bihurtu du Jaiok. “Orain, badakit liburu bat ematen dudanean, gaztelaniara itzuliko dela, eta ez dakit horrek eraginik izan ote dezakeen nire idazketan” dio (Jaio, 2021). *Aitaren etxea* eleberriaren itzulpen prozesua, berreki egina, ezberdina izan da:

(...) gaztelaniazkoa bukatzen nengoela etorri zen proposamena, eta Destino argitaletxetik zer idazten ari nintzen ikusteko lagin bat nahi zutela. Hasi nintzen testua bukatu baino lehen lagina idazten. Horrek ere eragina izan zuen jatorrizko testuan, aukera izan nuen hori bukatu baino lehen beste ikuspegi batetik begiratzeko testuari. Zaila izan da gero biak batera aldatzen eta egokitzen ibili naizelako. (Jaio, 2021)

Hasiera batean gertuagotik jarraitzen omen zion testuari, baina bere ahotsa aurkitu ez eta denborak eman dio urruntzeagatik ez larritzeko beta eta aldaketak egiteko zilegitasuna onartzea: “askatasun eta lasaitasuna hartzen joan naiz” (Jaio, 2021) dio, eta hauxe galdetzen dio bere buruari: “Nori ari zara hitz egiten momentu honetan? Irakurle erdaldun bati. Bada, euskaraz egin duzun bezala, pentsatu nola esango zenizkiokeen gauzak; pentsatu nola esango zeniokeen; pentsatu: kontaktu nahi duzun horretarako zein da bide eraginkorrena gazteleraz?” (Jaio, 2021).

Berriz kontatzearekin lotzen du Jaiok bere gaztelaniazko bertsioa: “Jarraitzen dut euskarazkoa, baina gauza batzuk ezin ditut kontaktu euskaraz egiten dudan moduan” (Jaio, 2021). *Amaren eskuak* eleberria, esaterako, 3. pertsonan emanik dator euskarazko bertsioan eta “3. pertsona hori da beti protagonistarekin doana, kamara bat eramango balu bezala. Baina gazteleraz oso urrunekoa iruditzen zitzaidan” (Jaio, 2021).

Aldaketa hori eta beste batzuk egin zituela dio, eta hargatik ere ez duela bere burua itzultzaile gisa ikusten, itzultzaileek “beste lege batzuk dituztelako” (Jaio, 2021). Arrulak identifikatu zituen aldaketa horietako zenbait bere doktorego tesian (2018), zenbait testu autoitzuliren erkaketa egin zuelarik egiturazko aldaketak aztertzeke eta maila mikroan kulturemak eta heterolinguismoa (hizkuntza bat baino gehiago agertzea edo beste hizkuntza batzuen erreferentzia) nola itzultzen ziren analitzatzeko. Hauek dira Arrularen hitzak:

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Lehen pertsonan egoteak protagonistaren sentimenduen eta kontaketa-artearen distantzia laburtzen duela zioen idazleak (ibid.). Segur aski, liburu osoari hain modu nabarmenean eragiten dion hautu literario hori ez zukeen hartuko itzultzaile alografoak, ezpada idazlearen edo editorearen eskaeraz. Era berean, gaztelaniazkorik ezean, esanen genuke euskarazko edizio berri bat egin izan balu ez zukeela hautu hori eginen; halaber, gaztelaniazkoan hala eginda ere, ohi denez, ez dago atzeraitzulpenik, eta ezin, beraz, bigarren euskarazkoan hautu hori aplikatuko ote zukeen jakin. (Arrula, 2018, 266).

Horiez gain, bada bestelako aldaketarik: “Karmele Jaiok atal oso bat lekuz aldatu du [Amaren eskuak] eleberriaren autoitzulpenean; euskarazkoan bigarren atala zena gaztelaniazkoan laugarren da” (Arrula, 2018, 180). Bidenabar, ez da ezohiko praktika autoitzulpenaren artean eta Unai Elorriagaren *SPrako tranbiaren* autoitzulpenean ere aurki liteke halakorik (Arrula, 2018, 180). Nolanahi ere den, pentsatzekoa da itzulpen alografo baten kasuan nekezago aurki genitzakeela halako adibideak.

Arrulak dio, maila mikroan, kulturemen eta heterolinguismoaren azterketak neutralizazioa eta sormen diskurtsiboa eragiten dituela, baina ez dela hori joera nagusia euskal autoitzulpenengintzan, nahiz eta teknika hori noiz edo noiz darabilenik ere baden. Ideia hori ilustratzeko, Jaioren kasua aipatzen du, eta konparazio baterako ematen du Meaberen arrotasunaren hobespena, glosarioak ere txertatzen dituela-eta gaztelaniazko autoitzulpenetan euskarazko kulturemen berri emateko (Arrula, 2018, 268). Neutralizazioaren eta sormen diskurtsiboaren adibide moduan Jaiok jatorrizko testuan ageri den *Euskal Herria* kulturema emateko darabiltzan ordainak dakartza Arrulak, eta nabarmentzen du *Euskadi* darabilela behin, kulturema ezabatzen dela kasu bitan eta *aquí* darabilela hirutan (2018, 198). *Euskaldunen* ordainak emateko ordezkapena eta ikuspuntu aldaketa erabiltzen dituela *nosotras, nuestro país, con una amiga* emanda (2018, 201). Arrularen gogoeta da “kategoriaz mudatzea gatazka txikitzeko helburuarekin ere egiten dela; kasurako, JAI ES testuan ikusi ditugun neutralizazioak horrekin lotu daitezke, bereziki identitate nazionalari dagozkionak” (2018, 274). Baina, Arrulak dio, halaber, ez dela berdin gertatzen hizkuntzari erreferentzia egitean, eutsi egiten zaielako horiei. (2018, 279). Oreka lortze aldera, konpentsazioa bezalako teknikak ere erabiltzen dituzte autoitzulpenak, eta Jaioren kasua honela azaltzen du Arrulak:

(...) kulturemei buruz aipaturiko neutralizazioak orekatzeko, beharbada; esate batera, Etxeberria abizena gehitzen zaio Paulo izenari (12. adibidea, 2528#), eta kasu batean eskola zena ikastola bihurtzen da. Halakoek Tanqueiroren (2002: 118) “gaintzulpen” kontzeptua dakarte gogora, sorburu-testuan ez duen balioa ematen baitzaie marka horiei itzulpenean. Neutralizazio kasuak orekatzeko ez ezik, baliteke idazleek sorburuko testuinguru linguistikoa adierazi nahi izatea xedetestuetan gehituriko euskarazko edo euskarari egindako erreferentzien bidez; bestela esanda, iruditeri sozial euskaldunari eutsi nahi diote. (Arrula, 2018, 281)

Hipotesi horrekin bat egiten du gero hizpide izango dugun itzulpenaren errepresentazio fikzionalak; izan ere, ikusiko dugu euskaratik gaztelaniarako itzulpena ikusgarri egiteko ahalegin bat nabari dela Jaioren *Aitaren etxea* eleberriaren gaztelaniazko bertsioetan, eta eleberriko pertsonaia Ismael idazleari euskal gatazka transmititzeak blokeoa eragiten diola. Halako gaietara jauzi egin aurretik, baina, Jaioren itzulpen praktikei eta Jaioren testuen itzulpenen berrekin nahi genieke, eta gogorarazi zer irizten dion idazleak itzulpen prozesuari oro har, eta zer ekarpen egiten dion bere langintzari.



Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Ildo horretan, Jaiok dio lan zaila dela itzulpena, baina aldi berean oso aberasgarria. Halaber, Jaiok dio itzulpena aukera bat dela bere testuei beste modu batean begiratzeko (Jaio, 2021). Hauek dira bere aitorkizunetako batzuk: “Ikusten ditut sorkuntza prozesuan ikusten ez ditudan gauzak”, “Itzultzen nenbilen bitartean konturatzen naiz zergatik egiten dudan gauza bat horrela... Hori oso aberasgarria da gerorako” edota “Zure testua ispilu batean ikustea bezalakoa da” (Jaio, 2021). Nolabait, bere idazketaren autoanalisirako ariketa da itzulpena Jaiorentzat.

Testuak ezberdin diren neurri berean eman ditu gaztelaniaz ezberdin Jaiok: “Aldeak daude liburu batetik bestera idazketan, eta aldeak daude, ondorioz, itzulpenean” (Jaio, 2021). Hala ere, azken eleberriaren sorkuntzan aurreko lanetan sentitu baino zailtasun gehiago izan baditu ere, itzulpenean ez du zailtasun gehigarririk nabaritu; bere hitzetan, itzulpena egiten denerako erabakiak hartuta daude eta “itzultzeak erraztasunen bat badauka, historia kontatuta dagoela, bidea egina dagoela da” (Jaio, 2021). Bere autoitzultzaile ibilbidearen bilakaerari errepasoa egiteko eskatuta, esperientziak lagundu diola dio, eta hasieran baino gutxiago lotzen zaiola euskarazkoaren egiturari, orain itzulpena urrunago dagoela, “idazten dut gehiago gazteleraz” (Jaio, 2021).

Manterolak 2012an egindako doktorego tesiko datuen argitan, 1980 eta 2010 urte bitarteetan euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen artean gaztelaniazkoak dira nagusi: % 46,68 (2012, 146). Bada, betiere *Nor da nor* datu baseak eskaintzen digun informazioaren arabera, halaxe gertatzen da Jaioren kasuan ere (euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpenen artean erdiak dira euskaratik gazlaniara egindakoak), eta autoitzulpenak dira denak, salbuespenen bakarrarekin (hurrengo atalean aipatuko dugu). Manterolaren datuen arabera autoitzulpena da euskaratik gaztelaniarako literatur itzulpenetan modalitaterik ohikoena, eta gainera, Manterolak dio balitekeela autoitzultzaileak sistematikoek modalitate hori bakarrik probatu izana (2018, 102-103). Jaioren itzulpen hautua joera horretan kokatzen da, une honetan euskaratik gaztelaniarako itzulpen alografo bakarra du (enkarguz sortutako testu labur baten kasua da, gero aipatuko duguna), eta eutsi egin dio bere testuak itzultzeari orain arteko idazle ibilbidean. Horrek ez du esan nahi, noski, bere testuak beste inork itzultzearen aldeko ez denik edo bere lana beste esparru batzuetara hedatzea ukatzen duenik (halako jarrerak agertzen dituzten idazleak badirelako aipatzen dugu), ezen gaztelania ez bestelako hizkuntzetarako bere testuen itzulpenak beste itzultzaile batzuen esku utzi izan dira, eta bere lanen egokitzapenak ere egin izan dira zinemarako eta antzerkirako. Jarraian, beste hizkuntza batzuetarako testu aldaketak izango ditugu hizpide.

### **Karmele Jaiorenak itzultzea: hitzaren itzala kontuan hartzea**

Irakurtzean entzunten dituzu gauza batzuk besteak baino gehiago, pentsatzen dut itzultzean ere gauza bera gertatzen dela. (Jaio, 2021)

*Nor da nor* datu basean bildutako datuak arakatuta, Karmele Jaioren testuak beste hizkuntza batzuetara eraman dituzten itzultzaile alografoen lanak hiru multzo nagusitan banatu ditzakegu. Lehenik, egilearen lan osoen itzulpenak daude; bigarrenik, euskal

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

autoreen testuekin ondutako antologietan txertatutako testuak; eta, hirugarrenik, euskal eremutik kanpoko autoreak biltzen dituzten antologiak, Jaioren testuak ere badituztenak.

Lehenbiziko multzoan sartzekoak dira *Amaren eskuak* (2006) eleberriaren itzulpenak eta *Aitaren etxea* (2019) eleberriaren itzulpenak. Lehenbizikoa Bonneco Pahl-Rugenstein argitaletxeak alemanez eman zuen 2009an: *Mutters Hände* (itz.: Gabriele Schwab) eta bigarrena Parthian Books argitaletxe galestarrean ingelesez argitaratu zen 2018an (itz.: Kristin Addis): *Her Mother's Hands. A casa do pai*, aldiz, Fabiane Secchesen itzulpena da, Sao Pauloko Instante argitaletxe brasildarrak 2021ean plazaratua. Karmele Jaioren webgunean, “Books” atalean *Музыка в воздухе* lanaren berri ematen da. *Musika airean* (2009) eleberriaren errusiar bertsioari dagokio. Errusieraz eman zuen Gernika-Mosku argitaletxeak 2013an.<sup>1</sup> Eleberrien autoitzulpenen aldean, denbora tarte luzeagoa behar izan du ingelesezko itzulpen alografoak (hamabi urte) eta errusierazko bertsioak (sei urte), baina alemanezko bertsioa eta portugesa bi eta hiru urteren buruan etorri ziren. Nolanahi ere den, badirudi jatorrizko testuen eta itzulpen alografoen argitaratze bidean tarteak txikitzen ari direla.

Bigarren multzoan, eta betiere *Nor da nor* datu baseari jarraikiz, euskal idazleen antologiak biltzen dituzten lanen artean ditugu beheko taulan laburbildu direnak:

Antologia	Argitaletxea, herrialdea	Hizkuntza	Urtea	Jaioren testua	Jaioren testuaren itzultzailea
<i>Kristalezko ontziak</i> (argitalpen elebidun digitala)	Booktegi (Euskal Herria)	Ingelesa	2018	“Little Glacé Pears” = “Azukrezko Madaritzuak”; “Grasshopper” = “Kilkerra”; “Black Leather Jacket” = “Txupa Beltza”.   Jatorrizkoak <i>Zu bezain ahul</i> eta <i>Ez naiz ni</i> liburuetan argitaratuak.	Aritz Branton de Langrois & Sara Jane Turtle
<i>Ultrasounds : Basque Women Writers on Motherhood</i>	University of Nevada - Center for Basque Studies (Reno)	Ingelesa	2014	“Ultrasounds” = “Ekografiak”, <i>Ez naiz ni</i> liburun argitaratua	Nere Lete
<i>Pomes perdudes: Antologia da narrativa basca moderna</i>	Tigre de paper, (Bartzelona)	Katalana	2014	“Lliure” = “Libre” in <i>Hamabost zauri</i>	Daniel Escribano
<i>Our Wars: Short Fiction</i>	University of Nevada - Center for	Ingelesa	2012	“Memories” = “Gogoratzen”, in <i>Zu bezain ahul</i>	Amaia Gabantxo

<sup>1</sup> Proiektuari amaiera eman eta webgunea itxi zenez gero, ezin izan dugu liburuaren eta itzulpenaren datu gehiagorik eskuratu lan hau egin bitartean.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

<i>on Basque Conflict</i>	Basque Studies (Reno)				
<i>AT! Antologia</i> elebiduna, online ere eskuragarri	Etxepare euskal institutua (Euskal Herria)	Gaztelania	2011	“Pink” = “Pink”, antologia honetarako sortutako testua	Gaztelaniazko testua: maramara Ingeleseko testua: Amaia Gabantxo
<i>Emekiro: Verhalen van jonge schrijfsters uit Baskenland</i>	Zirimiri Press (Amsterdam)	Nederlandera	2011	“Aftellen” = “Atzerako zenbaketa” & “De krekkel” = “Kilkerra” in <i>Zu bezain ahul</i>	Henrike Olasolo; Peter Smaardijk
<i>Kontu-kontari : Opowiadania baskijskie</i>	Tipi (Polonia)	Poloniera	2011	“To nie jest Hollywood” = “Hau ez da Hollywood” in <i>Hamabost zauri</i> & “Zamrozony lot” = “Hegaldi Izoztua” in <i>Zu bezain ahul</i>	Marta Kopińska

Karmele Jaiorekin izandako solasaldian jakin genuenez, bidean dira, halaber, *Aitaren etxea* eleberraren ingelesezko itzulpena, Margaret Jull Costaren lumatik etorriko dena. Halaber, Isaac Xubinen galegozko bertsioa ere ontze bidean da, eta Hugin e Munin etxeak plazaratuko du.

Azken multzoari gagozkioz, euskal autoreak ez bestelako autoreak (ere) biltzen dituzten antologiaren artean aipagarri da Parthian Books etxe galestarrak ingelesez emandako *Zero Hours on the Boulevard : Tales of Independence and Belonging* antologia, 2012koa. Bertan jasotzen da “Patiotik datozen usainak” ipuina, jatorriz *Ez naiz ni* ipuin liburuan argitaratua. Ipuinaren itzulpena Kristin Addisek egin da, euskaratik.

Halaber, 2017ko *Best European Fiction* bilduman (Dalkey Archive Press) Jaioren bi ipuin txertatu ziren: “The Mirror” eta “The Scream”. *Nor da nor* datu basearen arabera, bi ipuina jatorrizko bertsioak 2016koak dira, eta euskarazkoa da jatorrizko hizkuntza. Kristin Addis izan zen itzultzailea. Lehenago esan dugu, baina, horietako bat, “The Scream”, “Gure pasioak” izenburupean 2014an argitaratukoari dagokiola. Ipuin hori 2017an gaztelaniaz bazela jakina da; sareetan jaso daiteke horren berri, Karmele Jaiok berak esan baitzuen Twitter sarean blogean eman zuela “El grito” (Ikusi hemen: <https://twitter.com/karmelejaio/status/925762364506628096>). Jaioren webgunean dago ikusgai orain ere, eta ondoren jaso da gaztelarazko ipuin liburu batean; zehazki, *No soy yo* liburuan (2021), “El espejo” ipuinarekin batera. Azken ipuin horren kasua berezia da: euskaraz sortua izanagatik, ez da euskaraz publikatu. Bai, oster, ingelesez eta gaztelaniaz.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Kapitulu hau idazten ari garen unean *Nor da nor* datu basea eguneratzeko tarterik izan ez dela eta berau jasotzeko tarterik izan ez bada ere, bi ipuin horietako “The Scream” ipuina 2021ean Jull Costa itzultzaileak prestatutako *The Penguin Book of Spanish Short Stories* antologian ere jaso zen. Itzulpena Kit Mauderena da, eta kasu honetan gaztelaniatik egin dela esan dezakegu. Kasu honetan, berrizulpen batekin egiten dugu topo, lehenago ere emana baitzuen “The Scream” Kristin Addisek 2017ko *Best European Fiction* bilduman.

Era berean, 2019an Opowiadanie aldizkarian hainbat autoreren lanekin batera jasotzen da elebitan, polonieraz (itz.: Alicja Jakowiak) eta ingelesez (itz.: Kristin Addis) “Lustro = The Mirror” ipuina. *Nor da nor* datu basearen arabera, jatorrizko hizkuntza euskara da, eta aldizkarian ere hala diote, euskaratik itzuli duela Alicja Jakowiak-ek. Jakowiak itzultzaileak euskararen jakintza badu, Poloniako euskal lektoretzarekin izandako lotura tarteko. Argitalpena Wroclawen egiten den nazioarteko narrazio laburren Opowiadania festibalarekin lotuta dago.

Jarraian dakarguna gaztelaniaz sortutako salbuespen bikoitz bat da: salbuespen da, bai gaztelaniaz sortutako testua delako eta halako testuak bakanak direlako Jaiorenean, bai haur eta gazte literaturako alea delako (genero hau ere ez du askorik jorratu Jaiok). Enkarguz egindako testua da, eta jarraian hizpide izango dugun *AT!* antologiarekin gertatu bezala, apailatzaileek eurek enkargatuko zuten itzulpena seguruena. Euskarazko eta gaztelaniazko (*Juntos por un sueño*) bertsioek plazaratze data bera dute: 2015.

Antologia	Argitaletxea, herrialdea	Hizkuntza	Urtea	Jaioren testua	Jaioren testuaren itzultzailea
<i>Ametz batek elkaturik</i>	Tierra de Nubes (Bilbo)	Euskara	2015	“Danae eta pirata ilegorria II”	Iraitz Urkulo

Lehenago aipatu dugu Jaiok berak ematen dituela bere testuen gaztelaniazko bertsioak, eta euskara>gaztelania konbinazioan autoitzulpenari eusten dion egileetako bat dela. Salbuespena da, ordea, Jaioren ibilbide horretan *AT!* Antologiako testua, gaztelaniaz Maramara taldeak eman baitzuen. Aipatzekoa da, dena den, kasu honetan antologia horretarako gaztelaniaz sortutako testuak alde batera utzita, gaztelaniazko bertsioen erdiak Maramara itzulpen enpresak itzulitakoak direla euskaratik gaztelaniara, eta editorearen uneko beharrian eta erabaki bati erantzuten diola erabaki horrek.

Lehen esanak gogorarazita, 1989 eta 2010 urte bitartean euskaratik beste hizkuntza batzuetara itzulitako lanen ia erdiak euskara>gaztelania konbinazioan egindakoak dira, eta atzetik datoz estatu espainiarreko gainerako bi hizkuntzak: katalana (% 13,38) eta galegoa (% 6,42). Hurrena dator ingelesa (% 8,45), eta atzetik datoz frantsesa, italiara eta alemana (Manterola, 2012). Datu horiek Jaiorenekin erkatuta eta Jaioren kasuan ikus daitekeenez, itzulpen alograforik gehienak ingelesera egin dira; izan ere, gaztelaniazkoak autoreak berak egiten ditu. Katalanerako eta galegorako itzulpenak, ordea, bakanak dira Jaioren obran. Esan liteke, beraz, zirkuitu estatalean gaztelaniazko bertsioen bidez mugitzen direla Jaioren testuak oro har.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Azpitarratzekoa da Jaioren itzulpen alografoen kasuan horietarik asko euskal eragileek sustatutakoak direla. Bestelako lanetan esan izan dugu euskal literatur itzulpenaren eremua transnazionala dela, eta euskal literatur itzulpenaren eragileetako batzuk euskararen muga geografikoetatik haratago kokatzekoak direla (Ibarluzea, 2017). Bada, Karmele Jaioren obraren internazionalizazioaren parte bat, behintzat, horren adibidea da. Argi dago Jaioren gaztelania ez bestelako itzulpenen edizioan eragin egin dutela euskal eragileek eta euskara eta euskal kultura sustatzeko agentziek; izan ere, ingelesera egin diren itzulpenen artean, adibidez, diasporako euskal eragileek sustatuak ditugu. Arrazoi berak azaltzen du polonierako itzulpenen kasua: euskararen irakaskuntzarako lektoretza sarearen baitan egindako lan batez ari gara. Nabaria da, baina, sustapen agentzia horien bidez egiten dela jauzi bestelako zirkuituetara ere; hori da, adibidez, polonierako festibaleko antologiaren kasua.

Euskal literatur itzulpengintzaren eremuan hazi egin da produktu espezifikoen bilketa edo akumulazio sistematuak selektiboa; hau da, gero eta gehiago eta espezifikoa dira euskal itzulpenen bildumak, argitaletxe espezializatuak... Halaber, hazi egin da euskaratik zuzenean itzultzen duten itzultzaileen kopurua (Ibarluzea eta Olaziregi, 2016). Argiki ikus daiteke tendentzia hori Jaioren itzulpen alografoen kasuan. Esaterako, alemanez eta ingelesez emandako lehenbiziko bi eleberririk zuzenean itzuli dira euskaratik alemanera eta ingelesera. Jaioren azken itzulpenak, baina, gaztelaniazko bertsioetik pasata egindakoak dira, eta hori loturik egon liteke egileak gaztelarazko literatur sisteman lortutako posizioarekin eta sistema horretako edizio arduradunen zirkuituekin.

Itzultzaileekin harreman eta truke oso gutxi izan ditu Jaiok profesionalak beren lanetara jarrita egon direnean, galderaren bat izan zuela kontatzen du, baina oso puntualak, eta ez du harreman zuzen jarraiturik izan itzultzaileekin (Jaio, 2021). Itzulpenetara jotzen ote duen galdetuta, ingelesera jo izan duela dio, baina ñabardurak ondo barneratzeko gaitasuna falta duela. Hale ere, berak egiten ez dituen itzulpenekin argi du beste obra bat sortzen dela, bere lanek beste genero batzuetara bidea egiten dutenean gertatu bezalaxe. *Amaren eskuak* eleberriarren zinemaratzeez ari dela, hau dio Jaiok: “argi neukan beste istorio bat sortzen dela nire istorio batetik abiatuta. Beste obra bat da, beste ikuspegi bat, beste tresna batzuk... beste hizkuntza batera itzultzea bezalakoa da. Ezin duzu ibili zurea bilatzen uneoro. Beste bizitza bat hartu du zure lan horrek” (2021). Izan ere, nork bere esperientziaren arabera egiten du itzulpena:

Itzuli ere berdinean egiten dugu, motxilan daramagun guztiarekin, gertatu zaizkigun gauzekin, bizitzan izan ditugun esperientziekin... Zure esperientziekin bat egiten duten gauzei garrantzia gehiago ematen diezu beste batzuei baino. Irakurleekin ere gauza bera gertatzen da: batentzat eleberririk bateko gauzarik inportanteena izan daiteke gai bat, elementu bat, eta beste elementu bat beste batentzat. Entzuten dituzu gauza batzuk beste batzuk baino gehiago. Pentsatzen dut itzultzean ere gauza bera gertatzen dela. (Jaio, 2021)

Bere testuak itzultzeko gakoak galdetuta, Jaiok dio bere testuetan ekonomia bilatzen duela, bai eta elementu gutxi batzuen bidez giro jakin bat deskribatu nahia ere. Hala, “Icebergaren puntan jartzen duzun horrek oso adierazgarria izan behar du, elementuek karga handidunak izan behar dute irakurleak nahi dudana sentitzeko” (Jaio, 2021). Adibide moduan dakar aita mozkor datorrela iradokitzeko aitak etxera sartutakoan

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

txanponak uzteko modua erakusten diola irakurleari eta, beraz, itzultzaileak “kontuan hartu beharko luke hitzaren itzala, hitz batek atzean zer duen, zer gerizpe duen, zer ekarri nahi duen” (Jaio, 2021).

Bada, itzalez ariko gara hurrengo atalean. Gerizpe egiten dio askotan hizkuntza handiak txikiari, eta argi-ilunak eta itzalak ditu hizkuntza aniztasunak eta (auto) itzulpenak ere. Gainera, egoera errealak itzal egiten die fikziozko egoerei, eta Jaiorenean nola gertatzen den azalarazi nahi genuke hurrengo atalean.

### **Ilunari argi egitea: *Amaren eskuak eta Aitaren etxea***

Itzulpena eta, zer esanik ez, autoitzulpena, alde biko labanak izan litezke hizkuntza txikiarentzat. Alde batetik, hizkuntza txikiko literatura legitimizatzeko bidea izan liteke, nork bere burua ezagutarazteko bide bakarra zenbaitetan; gainera, itzulpena hizkuntza hegemonikotik pasatuta egiten denean, eta are gehiago, itzulpenaren egilea lan baten autorea bera denean, itzulpena eta jatorrizko lana ikusezin bihurtzeko arriskua dago. Hala gogorarazi izan dute Arrulak eta Manterolak (2019) Dasilvaren bidetik, hark esana baita espainiar literaturak bere egiten dituela gaztelaniara autoitzulpena egin duten autoreen lanak” (2009, 146). Ibarluzeak eta Olaziregik ere aipatu izan dute gaia; zehazki honela zioten euskal literatura itzuliaren autonomizazioari buruzko lan batean: “Es revelador que cuanto más canónico es un escritor en lengua vasca en el sistema literario español, más invisible se vuelve la lengua en que escribe originalmente sus textos” (Ibarluzea & Olaziregi, 2016, 305).

*Aitaren etxea* eleberriko Ismael idazlearen testuinguruan ere halaxe omen da: bere testuinguruan autore bat legitimizatzeko bidea gaztelaniaz publikatzea da. Honela dio Ismaelek bere buruari:

Zure aitarentzat ez zara benetako idazle bat izango liburu bat gazteleraz arigitartzen duzun arte. Madrileko argitaletxeak **nobela argitaratzeko proposamena** egin zizunean, burura etorri zitzaizun lehen pertsona aita izan zen. (Jaio, 2019, 106) <sup>2</sup>

Para tu padre no serás un escritor de verdad hasta que no te publiquen un libro en castellano. Es importante para ti mostrarle **tu próxima novela traducida**. (Jaio, 2020, 108)

Hala ere, gaztelaniaz publikatzeak eta arrakasta izateak presioa dakarkio euskal idazleari, aldebikotasunak etxekoei, bertokoei, Jauregi bezalako tokiko editoreei traizio egitea ekar dezakeelako ordainetan. Hemen ere gogoeta hau egiten du Ismael idazleak:

Jasone ez da inoiz hain ironikoa izan zurekin. Zu munduko gizon guztiak bazina bezala hitz egiten dizu. Irakurtzen dituen liburuetan gizona buruz esaten den kaka hori jaurtitzen dizu gainera, zure obsesio bakarra arrakasta lortzea balitz bezala, edozein prezio ordainduta ere. **Madrilekoekin kontratua sinatu zenuenetik** are ironikoagoa da zurekin. Eskaintzaren berri eman zenionean ez zen gehiegi poztu, ez zuen adierazi behintzat:

— Ondo. Baina, Jauregirekin hitz egin beharko duzu lehenago, ezta? (Jaio, 2019, 28-29)

---

<sup>2</sup> Hemen bezala hurrengoetan ere letrakera lodia gurea da.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

No ha sido nunca tan irónica contigo. Te habla como si tú fueses todos los hombres, que ella ve, como si tú solo buscaras el éxito y el poder a cualquier precio, toda esa mierda que denuncian los libros que lee. Es curioso, pero desde que **firmaste el contrato para publicar la traducción de tu libro** eus aún más irónica contigo. Cuando le hablaste de aquello, no se mostró excesivamente emocionada, dijo:

— Qué bien. Habrás hablado antes con Jauregi, ¿no? (Jaio, 2020, 28-29)

Ezen, gaztelaniazko sisteman arrakastatsu bihurtu eta sistema horren baitako autore gisa agertzeak hizkuntza txikia ikusezin bihurtzen du, eta itzal egiten dio handiak txikiari.

Jauregik ere beste modu batera hitz egiten dizu **Madrileko argitaletxearekin kontratua sinatu zenuenetik**. Gaztelarazko edizioak euskarazkoari itzala egingo dion beldurraz bezala.

— Eta, erditzea noizko? — galdetu zizun aurrekoan, bere madeinjauregi umoreaz.

— Badoa, erantzun zenion, labur, siku.

— Haurdunaldi luzea eta erantzun motzak. Espainiatik promozioan eramaten zaituztenerako prestatu beharko duzu zerbait luzeagoa... (Jaio, 2019, 29)

Jauregi también te habla de otra manera **desde que firmaste el contrato para publicar la traducción**. Con algo de resquemor, celoso, con miedo quizá a que la edición en castellano pueda hacer sombra al original en euskera, pero con su ironía de siempre, con su humor made in Jauregi.

— Bueno, y ¿para cuando parimos? Debes de estar ya con contracciones, ¿no?

— Ahí vamos —le respondes.

— Una respuesta muy breve para un embarazo tan largo... Cuando te lleven de promoción por España vas a tener que prodigarte más. (Jaio, 2020, 30)

Gai hau aipatua zuten Colbert Goikoak eta Martinek Ismaelek sentitutako presioa nabarmentzen zutenean eta Jauregiren kezka hizkuntza gutxituetako autore batenarekin lotzen zituztenean Jaioren lanaren analisi batean: “Jauregi, el editor de Ismael, refleja el temor analizado por el poeta y teórico gaélico Christopher Whyte (2002): que la traducción a un idioma dominante borre la lengua original minoritaria” (2021, 221).

Jaiorekin izandako elkarrizketan gai hau ez zen atera idazketarekin eta autoitzulpenarekin lotuta; bai, ordea, itzulpenen irakurketaz ari ginela: gaztelaniaz irakurri ohi dituen itzulpenak ikusezin sentitzen dituela nabari zuen Jaiok (2021), baina bere lehebiziko eta boteprontoan egindako gogoeta izan zen nola lortu ote zitekeen gauza bera pentsaraztea euskarazko irakurleari:

Irakurtzen dugunean beste hizkuntza bateko obra bat gaztelaniaz, nik behintzat, pentsatzen dut original bat irakurtzen ari naizela. Euskaraz ez da hori gertatzen. Nola egin euskal irakurle batek sentitzea nik gaztelaniaz sentitzen dudana bezala, ahaztea itzulpen bat irakurtzen ari zarela. (Jaio, 2021)

Auzia, beharbada, foku aldaketa egitean datza, geure buruei galdetzea nola egin ote litekeen gaztelaniazko itzulpenetan igarri dadin itzulpen bat irakurtzen ari garela, beste hizkuntza batzuetan gertatzen den bezala. Hain zuzen ere, hizkuntza harremanez ari ginela, garbi zeukan Jaiok: “Inbasioa hain handia da, normalizaturik ez dagoen hizkuntza batean ari gara, eta hain ganean daukagu gaztelera, neutroago gertatzen dela, matxismoarekin gertatzen den moduan” (Jaio, 2021).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Bada, modu kontzientean edo inkontzientean (habitua bietarikoa baita), bizitako egoerak konpentsatzeko estrategiak darabiltza autoitzultzaileak nor bere testuinguru linguistikoa agerrarazteko eta euskarari erreferentzia egiteko (Arrula, 2018, 281). Ageri-agerikoak dira estrategia horiek *Aitareen etxea* eleberrian, non argi geratzen den itzultzea hizkuntza aldatzea baino gehiago dela, nortasun auzi bat dela. Eleberrian, Isamael idazlearen emazteak, Jasonek, gaztetan Eibartik Gasteizera bizi izaten joandakoak, honela azaltzen du bere izen itzuliak ekarritako aldaketa:

Libe unibertsitatean ezagutu nuen lehen egunean, Jasone deitzen nintzela esan nion, ordura arteko Asun lurperatuz. Toro, yaya, yayo, tío, mamá, papá... galipotaren antzeko lokatz likatsu hori gainetik kenduz. Eibartik etorri berria zen lagunak bizitza berri baterako aukera eman zidan, bera bezalakoa izateko aukera. (Jaio, 2019, 46)

El día que conocí a Libe en la universidad le dije que me llamaba Jasone. Fue el momento en el que enterré a la Asunción, Asun, de hasta ese momento, Me bauticé otra vez. **Con mi nuevo nombre traducido** sentí que me quitaba de encima las palabras Toro, yaya, yayo, tío, mamá, papá, que tenía pegadas. Como chapapote, en la piel desde que nació. Aquella chica que había llegado a Vitoria desde Eibar era mi oportunidad para ser otra. (Jaio, 2020, 47)

Pasarteak adierazten duenari ez ezik, merezi du Jaioren autoitzulpenean baliatutako estrategiari begiratzeak: beltzez markatutako esapideak alderatuta ikus dezakegunez, itzulpena ikusgriagoa da gaztelaniazkoan, askoz ere agerikoagoa da pertsonaiak hartzen duen izen berria, Jasone, berei izenaren, Asun-en itzulpena dela.

Estrategia bera darabil Jaiok lehenago azpimarrak egin dizkiegun pasarteetan, bai eta jarraian dakartzagun bestelako batzuetan ere. Beraz, euskarazko bertsioan “Madriletik iritsitako proposamen bat” gaztelaniazko bertsioan “norberaren lana itzultzeko proposamen” den era berean, eta euskarazko “Madrilekoekin sinatutako kontratu bat” gazteleraz “hurrengo obra itzulia” bihurtzen den modu berean, nabarmendu egiten da hizkuntza aldaketa eta itzulpenaren izaera gaztelerazko bertsioko beste pasarte batzuetan ere, adibidez, eleberriko idazlea blokeaturik dagoela azaltzen den pasarteetan. Blokeo hori itzulpen batek eragiten dio, eta itzulpen hori ikusgarriagoa da gaztelaniazko bertsioan euskarazkoaren aldean:

Azken bi urteetan harri-kartoizko dekoratuak baino ez dituzu sortu. Nola egin sinesgarri inoiz gertutik ezagutu ez duzun dekoratu bat. Hamaika aldiz damutu zara zure nobela laurogeiko hamarkadako giro politiko nahasian kokatzeko erabakia hartu izanaz. Vidartek zure azken nobelari egin zion kritika harengatik izan ez balitz, agian ez zinen halako nahaspilan sartuko; eta **Madrildik zure hurrengo liburua gazteleraz argitaratzeko eskaintza heldu izan ez balitz**, agian ez zinen zure arrebak abesten zuen *Si vis pacem para bellum*-en garaian murgilduko. Madrildarrei gaia erakargarri egingo zitzaie la pentsatu zenuen, autentikoa, salgarria, gatazka barrutik ikusita, baina damututa zaude. Asmatutako kokaleku eta argitu beharreko misterioekin jarraitu izan bazenu, hobe. Egiazko eszenatoki batean murgiltzeko saiakera hasi zenuenetik, zalantzan jarri duzu idatzitako guztia, ez duzu zek ere sinesten. Eta ez da harriztekoa, zuk ez baitzenuen garai hura bizi izan zure arrebak edo Jauregik edo beste gazte askok bizi izan zuten bezala. Zuk ihes egin zenion beti mina edo arriskua eragin zezakeen guztiari. Zure arreba atxilotua izan bazen ere, zuk erakusleihu batetik bezala ikusi zenuen borroka. Beti leku seguru batetik. Gerretan hoteletik irten gabe kronikak idazten dituzten kazetarien antzera. (...) Zure pertsonaiak estralurtarrak zirela idatzi zuen, ez non ez noiz konkretu batean bizi direnak. Zure nobelak errealitatetik ihes egiteko modu bat besterik ez zirela kritikatu zuen, gupidarik gabe, zure obrak gizartearen eta garaien lekukotasun txikiarena ere kasotzen ez zuela azpimarratuz. Eta egiarekin konprometitu ezean, ez omen dago arterik. (Jaio, 2019, 17-18)



Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Como cada frase que escribes. En los últimos dos años tus palabras sólo han creado decorados de cartón piedra. Pero cómo hacer creíble un decorado al que no te has querido acercar nunca en la vida real. Te has arrepentido mil veces de haber decidido reflejar en tu novela el afilado ambiente político de la Euskadi de los ochenta. En mala ora decidiste dar protagonismo al conflicto vasco en tu obra. Si no hubiese sido por aquella crítica de Vidarte a tu último libro, quizá no se te hubiese ocurrido meterte en semejante lio. Y si no se te hubiese ocurrido meterte en semejante lio. **Y si no hubiese llegado la oferta para publicar la traducción de tu próximo trabajo al español**, quizá tampoco te hubieses embarcado en una historia de la época del *Si vis pacem, para bellum* que cantaba tu hermana. Pero te has arrepentido mil veces. En estos dos años has puesto en duda cada línea que has escrito, no te llegas a creer lo que escribes porque realmente no viviste aquellos años como tu hermana, a la que llegaron a detener, o como Jauregi o muchos otros; tú siempre huiste del compromiso político, del activismo, huiste de cualquier signo de dolor o riesgo y viviste al margen del conflicto. Cómo escribir ahora sobre ello, si no encuentras pedazos de verdad ni en tus manos ni en tu memoria. (...) En la crítica a tu último libro escribí que tus personajes parecían extraterrestres, que tu novela no recogía ni una sola referencia del mundo en el que viven, del contexto social, político... Que no sacabas a tus personajes a la calle, que los mantenías encerrados debatiendo entre cuatro paredes. Pero que incluso en eso te quedabas a medias, porque los mirabas desde lejos, como con miedo a entrar en su interior y en sus pesadillas. En tu novela no había compromiso ni con el entorno ni con el interior de tus personajes. Y sin compromiso con la verdad, no hay arte. (Jaio, 2020, 17-18)

Esan liteke *Aitareen etxea* eleberriko Ismael idazlea erabat jakitun dela gatazkaren transmisioan neutralizazio bat egiten ari dela. Horrek blokeatu egiten du, jakitun delako, nolabait, ez dela ari zuzeneko bizipenak eskaintzen, inorenak ari dela beste ahots batez ematen. Beharbada, fikzioan ageri den ardura hori egileak berak bere itzulpen prozesuan bizi izandako auzi baten isla izan liteke, Arrulak identifikatu gisan. Lehen esan bezala, Arrulak ondorioztatua da *Euskal Herri* eta *Euskadi* kulturemak autoitzultzean kulturemak “kategoriaz mudatzea gatazka txikitzeko helburuarekin” egiten direla beharbada, eta neutralizazioak lotuta daudela identitate nazionalarekin (Arrula, 2018, 274).

Gatazkaren gaia ageri duten testuen itzulpenak sortzen dituen auziak agertu izan dira lehenago ere euskal literaturak emandako istorioetan. Saizarbitoriaren *Martutene* (2012) da adibide azpimarragarri bat. Eleberriko Martin pertsonaia idazleari itzulia izango dela jakiteak presioa eragiten dio, eta ezin idatzia dakarkio; ahots propioaren bila dabil idazlea. *Martuteneko* Martinek bezala, Jaioren eleberriko Ismaelek ez du lortzen posizionatzea edota bere posizionamendua erakustea. Ordea, itzultzaileak (*Martuteneko* Julia pertsonaia itzultzaileak), gaiari buruzko gogoeta egin eta profesioak ematen dion talaiatik, bere lekua zein den aitortuta, lortu egiten du. Nola? Bada, erru sentimenduari aurre eginda, fideltasunaren auzia gaindituta, historia bere ahotsetik kontatuta eta aldaketak egiteko lizentziak hartuta:

Bada, gatazkaren narratibetan itzultzaileak hartzen dituen estrategiak (ikus Baker, 2016) memorien transmisiora ekarrita, semearekin egiten duen bitartekaritzan, bereganatze selektiboa (Baker, 2016, 114. or.) egiten du Juliak, ezabatzeak egiten dituen aldetik: hautatu egiten du zer kontatu eta zer ez; eta kontatzen duen hori nola matizatu.

Beraz, birkokatze-estrategia ere badarabil; hain zuzen ere, Martinen testuekin, darabilen berbera. Zehazki, ohar paratestualen bidezko birposizionatzea egiten du hitzaurreak eta oin-oharrak proposatzen dituen gero Martinen ipuinetako gatazka-egoera historikoak kokatzeko. Estrategia horien bidez esku hartzen duen itzultzeak ez du bitartekaritza-ekintza neutro edo pasiboa egiten

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

duenik uste, onartzen du erantzukizuna duela eta kokatu egiten da, modu kontzientean. Izan ere, Bakerren hitzak gure eginez (gatazkaren itzulpenaren inguruan ari da), itzultzaileek, beste edozein gizarte-eragilek bezala, gizartearekikoak sortzen, negoziatzen zein aurka egiten duten testuak itzultzen parte hartzen dute, eta itzulpen horietan darabiltzaten estrategiek lagundu egiten diete autorearen narratibatik disoziatzen edo harekiko enpatia agertzen (Baker, 2006, 105. or.). (Ibarluzea eta Arroita, 2020, 488)

Paperezko itzultzaileak egiten duen era berean, esan dezakegu, alde batetik, itzulitako testuen bidez egiten den gatazkaren transmisioan birkokatze beharrak agerrarazten ari dela Jaio bere eleberriko pertsonaien gogoeten bitartez. Beste alde batetik, esan dezakegu bere itzulpen praktikaren bitartez eta aldaketak egiteko lizentzia hartuta, hizkuntza gutxitua ikusarazi eta itzulpena ikusarazteko saioa egiten duela darabiltzan itzulpen estrategien bitartez.

*Amaren eskuak* (2006) eleberrian ere badu itzulpenak agerpenik fizkioan: Lewis, Nerea kazetariaren senarra, itzultzailea da. Ingelesa da Lewis. Lewisek eta Nereak Oxforden ezagutu zuten elkar. Izan ere, bertara eraman zuen Nerea Euskal Herriko gatazka politikoa bitarteko maitelaguna desagertzeak eragindako minak ahaztu nahiak. Bada, Jaiorenean, beste euskal idazle batzuen fizkiozko itzultzaileengan gertatzen den bezala, itzultzaileen izaerari eta langintzari buruzko estereotipoak, ideiak, usteak... agertzen dira.

Batetik, gogoratzeko modukoa da itzultzaileak literaturaren zubigile gisa irudikatu ohi direla, kultura batetik besterako transmisioa egiten dutela (Ibarluzea, 2017). Hala ageri zaigu Lewis, esaterako, alabari Literatura Unibertsaleko klasiko bat, Alizia, egunero-egunero irakurtzen diolarik (izena ere ez bide du pertsonaiak kasualitatez jarria).

Bestalde, ez dezagun ahaztu itzultzailearen lana lan bakarti gisa irudikatu izan dela fikzioan (*idem*), eta hala gertatzen da *Amaren eskuak* eleberrian ere:

Eta Lewis hauek kontatzen hasten zaionean bere buruari galdetzen dio nola moldatuko litzatekeen senarrak egun osoa etxean igaroko ez balu itzulpenak egiten. Zer gertatuko litzatekeen berak bezala etxetik kanpo lan egingo balu eta berandu helduko balitz, egunkarian itxirako txada egokitzen zaionean bera iristen den bezala. (Jaio, 2006, 19-20)

Y siempre que Lewis me empieza a contar que si Maialen esto y Maialen lo otro, me pregunto cómo me las arreglaría si Lewis no trabajara en casa con sus traducciones. Si, como yo, trabajara fuera. Me pregunto qué pasaría si él también llegara tarde de trabajar, como llego yo un día si y otro también. (Jaio, 2008, 21)

Itzultzaileak, baina, isolamendu moduan bizi du lan hori:

Lewisen inbidia izaten du, etxean lanean, arratsaldeetan Maialenekin olgetan, gauez ipuina irakurtzen. Baina Lewisek sarritan esan dio nahiago lukeela etxetik kanpo lan egin, etxetik irtetea lasaitu ederra dela askotan. Eta ingelesez esan dio. A relief. Eta gazteleraz errepikatu dio, inoiz gainetik kenduko ez duen ingeles doinuarekin. (Jaio, 2006, 20)

Envidia a Lewis. Trabajar en casa le permite estar más horas con Maialen, le permite contarle cuentos por la noche. Pero él me dice que preferiría trabajar fuera, que salir de casa es también un

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. *Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean*. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

alivio. Me lo dice en inglés, a relief, y me lo repite en castellano, con ese acento que no logrará quitarse nunca de encima. (Jaio, 2008, 21)

Aurreko batean kontatzen hasi nintzaion lanean haserretu egin nintzela Fidelekin, eta oso agobiatuta nagoela eta denborarik ez dudala ezertarako, eta amaren kontuak ere asko kezkatzen nauela... Eta berak baietz, ulertzen duela, baina gaineratu zuen, bere elegantzia ingelesarekin, nik behintzat airea hartu dezakedala, baina berak egun osoa pasatzen duela etxetik irten gabe eta inor ezagutu gabe, eta hori ere oso gogorra dela. Ez zidan horrela esan, baina hori esan nahi zidan. (Jaio, 2006, 106)

El otro día le conté que me había enfadado mucho con Fidel en el trabajo, que me ahogo porque no encuentro tiempo para llegar a todo, que la situación de mi madre me está destrozando por dentro... Y él me dijo que sí, que lo entendía, pero, haciendo gala de su sutileza inglesa, me dijo que yo por lo menos tengo la oportunidad de salir de casa y tomar aire, pero que el se pasa el día encerrado en casa, sin relacionarse apenas con nadie y que eso también es duro. No me lo dijo con esas palabras, claro, pero era lo que me quiso decir. (Jaio, 2008, 87)

Hain zuzen ere, isolamendu horrek eragiten du sozializatorik eza, eta paperezko itzultzaileak jendartean egotea gustuko ez duten pertsonak izan ohi dira, hitz gutxikoak, barnera begirakoak (Ibarluzea, 2017):

(...) Bueno, egia esan, Lewis ez da sekula izan berba askokoa, ezta? (Jaio, 2006, 73)

Bueno, la verdad es que Lewis tampoco ha sido nunca muy hablador, ¿no? (Jaio, 2008, 56)

*Amaren eskuak* eleberrian Nereak bere senarraren izaerari egozten dio izaera hori.

Itzultzailearen izaera ez ezik, itzulpen langintzari buruzko ideiak ere ageri zaizkigu islaturik fikzioan. Hain zuzuzen ere, itzulpen administratiboaren eta teknikoaren inguruko pertzepzio negatiboagoa, itzulpen literarioaren aldean (Ibarluzea, 2017):

— Eta zelako gauzak itzultzen ditu Lewisek? Zertan dabil orain adibidez? —galdetu dio izekok, autoan sortu den isiltasuna hausteko asmoz, ziurrenez.

— Biografia bat itzultzen ari da orain, baina era guztietako lanak egiten ditu. Askotan testu teknikoak izaten dira, astunagoak. Baina orain biografia batekin dabil. (Jaio, 2006, 68)

— Y ¿qué tipo de cosas traduce Lewis? —me pregunta la tía al ver que no le doy conversación. Solo miro a la carretera en nuestro camino hacia el hospital.

— Ahora está traduciendo una biografía, pero traduce de todo. A veces le toca traducir textos técnicos, mucho más aburridos, pero ahora está con una biografía. (Jaio, 2008, 52)

Pertzepzio hori beste hainbat (euskal) lanetan ere ageri da, aurreko ikerlanetan erakutsi izan dugunez. Gauza bera gertatzen da itzulpen prozesua irudikatzeko moduekin, testura etengabe bueltatza, zuzenketak, entregen presioa... lanbidearen parte dira (Ibarluzea, 2017, 2020a). Hala dago Lewis epemugen bezperan etxekoekin tartetxo bat hartu ezinda aspirina eferbeszenteen beharrean (Jaio, 2019, 119; Jaio, 2020, 98-99). Itzulpenek eskatzen dituzten zuzenketak eta berridazketak ere agerian geratzen zaizkigu fikziozko lanean:

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Ohean sartu eta Lewisen berotasuna bilatu du. Ohe barruan eserita dago Lewis, sorbalda oheburuan duela. Orri batzuk eta boligrafo gorria ditu eskuetan. Zuzenketa batzuk bukatu behar dituela esan dio. Eta hor dabil. Marratxo bat egiten du hemen, beste bat han; hitz bat zirkulu batean sartu eta esaldiaren alde batetik bestera bidaltzen du; zirriborro bat egiten du hemen, gezi bat han. Eta hamaika aldiz irakurria duen testua hamabigarrenez irakurtzen du. Egun guztia igarotzen du horrela, sudurra hitzetan sartuta, eta batzuetan Nereari iruditzen zaio orrien kolorea gartzen ari dela bera ere. Gero eta zurbilago ikusten dio aurpegia.

Lewisen gerriari heldu dio eta honek berearekin jarraitu du. Eskuineko eskuarekin betaurrekoak altxatu ditu, sudur puntan zituelako, eta ondoren buruan hatz egin du boligrafoaren atzeko aldearekin (Jaio, 2006, 151)

Busco el calor de Lewis al meterme en la cama. Está sentado, apoyado en unos cojines, y sostiene en sus manos unos cuantos folios y un bolígrafo rojo. Me dice que tiene que terminar unas correcciones. Y ahí anda, tacha aquí una palabra, escribe allí otra; introduce una palabra en un círculo rojo y lo manda de una parte de la frase a otra; una flecha aquí, otra allá. Y vuelve a leer la frase, la misma que ha leído ya mil veces. Se pasa así el día, con las narices metidas entre letras. A veces me parece que se le está quedando cara de folio, con ese color tan pálido que tiene. Me agarro a su cintura y él sigue con lo suyo. Se levanta las gafas con el dedo, las tenía ya en la punta de la nariz, y luego se rasca la coronilla con el bolígrafo.

(Jaio, 2008, 125)

Berea kazetariaren lana izanagatik (beharbada hargatik ipini du Nerea protagonista erredakzio batean lanean, teletipo artean...), probatua da Jaio itzulpenetik, baina etxean egiten du lan hori, Lewisek bezala. Bada, azken hori bezala irudika dezakegu guk ere, fikziotik errealitaterako jauzian: berrirakurketa, zuzenketa eta berridazketa etenganbekoan.

### **Azken hitza**

Karmele Jaioren obra euskarazko sorkuntza da (salbuespenak albuespen) eta gaur Karmele Jaio autoitzultzaile sistematikoa da euskara>gaztelania hizkuntza konbinazioan. Idazketa prozesu gisa ulertzen du Jaiok autoitzulpena, eta aldaketak egiteko askatasuna bere eginik, berriz kontatzeko ariketa gisa dakusa. Bere testuak itzultzeko gakoak gagozkiela, esan gabeko hitzak dira inportanteak bere idazketan, bai eta hitzek iradokitzen dutena ere. Hain zuzen ere horixe da bere testuak itzultzeko erronka Jaioren ustez. Gaztelania ez beste hizkuntzetarako itzulpen guztiak alografoak dira, eta batez ere beste euskal autore batzuekin batera agertu da antologietan. Ipuin bakar bat kenduta (ez da euskaraz argitaratu baina bai gaztelaraz eta ingelesez) euskaraz publikatu ondoren agertu dira gaztelaniaz eta beste hizkuntza batzuetan Jaioren testuak (gaztelaniaz autoitzulpenak eta itzulpen alografoak gehienbat ingelesez), eta nabaria da gero eta tarte gutxiago pasatzen dela jatorrizko bertsiotik itzulpenetarako bidean, besteak beste, idazleak berak integratu egin duela autoitzulpena bere idazketa prozesuan. Nolanahi ere den, idazleak berak erdietsitako errekonozimenduak ere izan lezake eraginik. Jaioren itzulpen alografoetan nabari da euskal literatura itzuliaren autonomizazio prozesuarekin bat egiten duten euskal eremuko sustatzaileen lana, eta euskaratik beste hizkuntza batzuetarako itzulpenetan zubi hizkuntzarik gabe egindako itzulpenak ere ez dira gutxi. Zenbait kasutan, euskal literatur itzuliaren esparruko eragileek sustatutako testuek, euskaratik zuzenean itzuliek, beren lekua topatu dute nazioarteko idazleak bildu izan dituzten bildumetan. Bide bera egin dute beste pare bat testuk (azkenek), gaztelaniaren bidetik, ordea; izan ere, azken itzulpenak gaztelaniazko literatur zirkuitutik sustatuta egin dira,

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

gaztelaniatik abiatuta. Bada, autoitzulpenaren bidez mugitzen da Jaio zirkuitu nazionalean, eta adituen esanetan esparru horretan jatorrizko hizkuntza txikia desagerrarazteko joera izaten da idazle elebidunen kasuetan. Ardura hori fikziora ermanada agerrarazten du Jaiok, *Aitareen etxea* eleberriko idazlearen idazketa eta itzulpen egoerei lotuta. Baina, esku hartuta eta bere testuen bertsioen aldaketak egiteko askatasunaren jabe, birkokatze estrategia bat ere badarabil Jaiok, eta konpentsazio estrategiak darabiltza autoitzulpenean bere eleberriaren gaztelerazko bertsioa emateko, hain zuzen ere ikusgarriago bihurtzeko fikziozko idazlearen gaztelerazko lana itzulpen bat dela. Gainerakoan, itzulpen prozesuaren eta itzultzaileen irudi fikzional ohikoak ageri dira bere lanetan: etxeko lan isolatuarena eta etenganeko irakurketa, zuzenketa eta berriidazketarena.

## BIBLIOGRAFIA

Arrula Ruiz, Garazi. *Autoitzulpenaren teoria eta praktika Euskal Herrian/Theory and Practice of Self-translation in the Basque Country*. 2018. UPV-EHU, Doktorego tesia.

Arrula Ruiz, Garazi eta Manterola Arrizabalaga, Elizabete. “No a La Autotraducción. Razones Para Renunciar a La Traducción de Obra Propia En El Contexto de Las Relaciones Asimétricas Entre El Castellano y El Euskera”. *Literary Self-Translation in Hispanophone Contexts – La Autotraducción Literaria En Contextos de Habla Hispana*, Palgrave Macmillan, 2019, 241-285.

Dasilva, Xosé Manuel. “Autotraducirse en Galicia: ¿bilingüismo o diglosia?”. *Quaderns. Revista de traducció*, 16, 2009, 143-156.

Colbert-Goicoa, David eta Martin-Etxebeste, Jon. “Una nueva ventana para La casa del padre. Análisis de la novela de Karmele Jaio”. *Rassegna iberistica*, 44(115), 2021, 217-228.

Ibarluzea Santisteban, Miren. “The translation habitus of contemporary basque writers”. *Estudios de traducción*, 5, 2015, 59-75.

--- “Urretabizkaiaren eta Sarrionandiaren itzulpen-habitusak”. *Fontes Linguae Vasconum*, 122(1), 2016, 153-167.

--- *Itzulpengintzaren errepresentazioak euskal literatura garaikidean: eremuaren autonomizazioa, literatur historiografiak eta itzultzaileak fikzioan*. 2017. UPV-EHU, Doktorego tesia.

--- *Euskal literatura itzuliaren egiturak eta islak. 1975-2015*. Bilbo, Euskaltzaindia and UPV/EHUko argitalpen Zerbitzua, 2020a.

--- “Kirmen Uribe eta itzulpena: bidaia amaigabea”. *Kirmen Uribe: Bizitza, Fikzioa*, Bilbo, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2020b, 65-84

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Ibarluzea Santisteban, M. 2022. Karmele Jaio itzultzen edo Karmele Jaioren eskuak idazlearen etxean. Olaziregi, M.J. & Elizalde, A. (ed.). *Karmele Jaioren literatura, emozio gorpuztua*. 175-204. Bilbo: UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Ibarluzea Santisteban, Miren eta Arroita Azkarate, Izaro. “Ama itzultzailea memorien transmisio-bideetan: Martutene eleberriaren irakurketa bat”. *Fontes Linguae Vasconum*, 130(1), 2020, 471-490.

Ibarluzea Santisteban, Miren eta Olaziregi Alustiza, Mari Jose. “Autonomización y funciones del subcampo de la traducción literaria vasca contemporánea. Una aproximación sociológica”. *Pasavento. Revista De Estudios Hispánicos*, 4(2), 2016, 293-313.

Jaio, Karmele. *Amaren eskuak*. Donostia, Elkar, 2006.

--- *Las manos de mi madre*. Karmele Jaioren itzulpena, Donostia, Ttartalo, 2008.

--- *Aitaren etxea*. Donostia, Elkar, 2019.

--- *La cada del pradre*. Karmele Jaioren itzulpena, Madrid, Destino, 2020

--- Miren Ibarluzeak Karmele Jaiori egindako elkarrizketa argitaragabea. 2021.

Lertxundi Esnal, Anjel. *Itzuliz usu begiak*. Irun, Alberdania, 2019.

López Gaseni, Jose Manuel. *Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan*. San Sebastian, Utriusque Vasconiae, 2005

Manterola Arrizabalaga, Elizabete. *Euskal literatura beste hizkuntza batzuetara itzulia*. Bilbao, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua, 2012.

---“Collaborative Self-Translation in a Minority Language: Power Implications in the Process, the Actors and Literay Systems Involved. Self translation and Power, Palgrave Macmillan, 2017, 191-215.

--- “Evolución de la faceta (auto)traductora o de autor traducido. La casuística vasca actual”. eHumanista/IVITRA, 13, 2018, 100-115.